BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

3788

AGINDUA, 2011ko ekainaren 21ekoa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, 2011ko «Joxe Mari Korta» sariak ebatzi dituena.

«Joxe Mari Korta» sariak arautzen dituen Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2009ko uztailaren 29ko Aginduaren 7. artikuluan zehaztutakoaren arabera (2009ko abuztuaren 10eko EHAA, 151. zk.) (Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2011ko apirilaren 20 Aginduz aldatuta), 2011ko ekitaldiko deialdia iragarri duen Kabinete, Plangintza eta Estrategiako sailburuordearen 2011ko maiatzaren 18ko Ebazpena (2011ko maiatzaren 18ko EHAA, 93. zk.) ikusita,eta horretarako 2011ko maiatzaren 11ko Aginduz izendatutako Epaimahai Kalifikatzaileak egindako proposamena ezagututa, honako hau:

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– 1.– Epaimahaiaren proposamena ikusita, 2011ko ekitaldiko <<Joxe Mari Korta>> sariak honako hauei ematea:

Esteban Sudupe Alberdi jaunari.

Juan Luis Arregui Ciarsolo jaunari.

Alfredo Samper Izarra jaunari.

Lorenzo Beltrán Puente jaunari.

2.– Onuradunek, 2009ko uztailaren 29ko Aginduan ezarritakoari jarraiki, goraipamen, aintzatespen edo aipamen publikoa jasoko dute horretarako antolatutako ekitaldian.

AZKEN XEDAPENAK

Agindu honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Aginduaren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa ezarri ahal izango zaio Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuari, hilabeteko epean, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 21a.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburua,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.